

BOTERETIK ERAGINERA: MEKANISMOAK ETA PROZESUAK LEITZARANGO ETA URBINA/MALTZAGAKO LISKARRETAN

Tesiaren egilea: Mario Zubiaga Garate

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Politika eta Administrazio Zientziak

Tesi-zuzendaria: Pedro Ibarra Güell eta Iñaki Barcena Hinojal

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesian bi liskar ekologista aztertu ditugu sakonki: Leitzarango autobiarengatik eta Urbina/Maltzagako ardatzari buruz piztutakoa. Euskal mugimendu ekologista izan dugu hizpide, haren diskurtsoak, antolaketa, protesta moduak, jarduera motak... baita eredu estrategikoak ere. Hala, gizarte-mugimenduen jarduera kolektiboa hiru ereduaren arabera gauzatzen dela uste dugu: botere-, eragin- eta identitate-ereduen parametroetan, alegia.

Gainera, mobilizazio-prozesua beste prozesu zabalagoekin lotu dugu, demokratizazioarekin eta nazio-erakuntzarekin, alegia. Demokratizazioaren eta nazio-gintzaren prozesu oldartsu zabalak botere-eredutik eraginaren eredura doan ibilbidean garatzen dira. Boteretik eraginerako jauzi hori mobilizazioan zehar pizten diren mekanismo eta prozesu ezagun batzuen bitartez uler daiteke.

Euskal Herrian azken hamarkada hauetan bizi izan dugun protesta-zikloan nazio-gintza eta demokratizazioa egon dira jokoan, eta mugimendu ekologistak bul-tzatutako liskarretan —Leitzarangoan eta Urbina/Maltzagakoan, besteak beste— oso argi islatu dira bi oldarraldi zabal horiek. Neurri batean, liskar ekologista horiek izaera alegorikoa izan dute: bertan jokatu da euskal demokratizazioa, bertan gauzatu da nazio-gintzaren inguruan piztu den lehia hegemonikoa.

Tesian sakonki aztertu dugu Leitzarango eta Urbina/Maltzagako errepide egitasmoen inguruan piztutako ekintza kolektiboa. Esan bezala, hizpide izan ditugu liskaraldi jakin horietan bildutako eragileek landu zituzten diskurtsoak, protesta-ekintzak, estrategiak, errebindikazioak eta osatutako identitate kolekti-boak, besteak beste. Gatazkaren nondik norakoak aztertuta, saiatu gara ulertzen liskaraldi horien eta oldarraldi zabalagoen arteko lotura, eta lotura horren izaera. Leitzarango eredu eta Urbina/Maltzagakoa, gai horri dagokionez, arras desberdi-nak izan dira. Tresna parte-hartzaile/deliberatzaileen mugak, protesta-tresnen kontraesan eta mendekotasunak agerian geratu zaizkigu, liskar batean zein bestean. Bien arteko alderaketa egin dugu, eta mobilizazioaren mekanismo eta prozesuak aztertu ditugu.

Gatazka, protesta, jarri dugu analisiaren erdigunean. Gure ustean, gatazka agonistikoa —hitza baino gehiago, gerra baino gutxiago den hori— da boteretik eraginera igarotzeko bidearen, demokratizazioaren eta horrekin uztartuta dagoen naziogintzaren giltzarria; hori da gizarte-mugimenduen jarduera kolektiboaren eremu aproposa.

Izan ere, politikagintza sareetan dagoen indar-oreka aldatzera datorren heinean, gatazkarik gabe ez dago demokratizaziorik. Botere-ereduan saiatzen den gizarte-mugimendu liskartsurik gabe nekez egingo da aurrera demokratizazioaren ibilbide amaigabean. Kontraesanak kontraesan.